# DENBORAREN ORDENAGAILUA

2025. urtea da. Kemen dut izena eta 3.DBHn nago. Ez da batere erraza, oso espergarria da. Baina gaur pozik nago, nire amama eta aititeren baserrian egingo dudalako lo, Botroin, errege baten moduan.

-Arrastion Aitite! Zer moduz zaude?- agurtu diot, nire gauzak ohe gainean uzten ditudan bitartean.

-Ondo, gazte, eta zu?- galdetu dit- zer egingo dugu afaltzeko?

-Arrautzak eta patatak- erantzun diot irrikan.

Aititeren trastero zaharrera jaitsi naiz, hor bere garaiko jostailuak gordeta dituelako. Arreta deitu dit aurrekoan susmatu ez dudan ordenagailu bitxi batek. Pizten zaiotuko naiz.

Ordenagailua hegazkin baten antzera hasi da zarata egiten. Aititek zehozer esango didala pentsatu dut, baina sukaldean dagoenez, ez da ohartu. Ordenagailuak aplikazio bi bakarrik ditu, baina inoiz ikusi ez ditudanak. Supertxat deiturikoa zabaldu dut, eta bertara mezu bat heldu zait. "Francisco: nire laguna izan nahi duzu?" Nik, 14 urteko mutil gazte batek egingo zuen bezala, baietz esan diot.

-Kaixo, Francisco naiz- heldu zait- zelan zure eguna?

Mesfidantza izan dut berarengan, baina denbora baten ondoren konfiantza hartu dugu.

-Gauza bat Kemen- hasi zait esaten- ez ahal duzu salfuman apur bat eukiko etxetik, ezta?

Eskaera arraro xamarra iruditu zait, baina ez diot ezetz esan.

-14 urteko ume bat naiz- hasi da aitortzen- errekurtso eskaseko familia batekin bizi naiz eta gure uraren tuberia oztopatuta dago. Gainera, bizi garen urtean ez da batere erraza salfumana eskuratzea. Ez dut uste konturatu zarenik, baina zure profil argazkia ikusita urte ezberdinetan bizi garela uste dut, ni 2125. urtean bizi naiz.

Harrituta geratu naiz, baina sinetsi egin diot, bere profil argazkia oso bitxia delako.

-Eta nola eramango dizut salfumana? - galdetu diot

-Butroiko gazteluko atetik hegoaldera 5 pausutara utzi lurrazpian - erantzun dit

Aititek etxean zuen salfumana eraman dut gaztelura, eta eskatu bezala eskatatu dut.

Etxera bueltatzean berriro idatzi diot, baina ez dut erantzunik jaso. Ordea, beste lagun-eskaera bat jaso dut. "Josu: nire laguna izan nahi duzu?" Eskaera hau ere onartu dut, tipo jakintsua dirudielako.

-Kaixo Josu, zu ere ~~1925~~ 1925. urtean bizi ahal zara? - ez dut izutu nahi, baina jakin nahi dut.

-Bai - erantzun dit - zu ez?

-Ez, ni 2025. urtean bizi naiz - kontatzen hasi naiz - zure garaian bizitzen den lagun bat ezagutu dut, Francisco. Ezagutzen duzu? - galdetu diot, erantzuna irrikaz itxaroten.

-Bai, Francisco hemengo 30 urteko gizon gizen bat zen gizon oso maltzur bat. Salfumana eta paper albala erabiliz bonba handi bat sortu zuen eta gutariko asko hil zituen.

Harrituta nago. Nik lagundu dudan Francisco ez da 14 urteko ume bat, 30 urteko gizon maltzur bat baizik.
Arineketan salfumana berreskuratzera joan naiz gaztelura. Salfumana atera dut eta etxera bueltatzean, Franciscoren mezu bat jaso dut.
-Ez dut salfumana aurkitzen - kexatu zait

Francisco zoroari kasu gehiago egingo ez diodala erabaki dut; izan ere, nik emandako salfumanik gabe ezin izango duelako bonbarik egin. Nire aititerengana igoko naiz, eta kontu honek etorkizunari etxiko dizkiot.

Ekain Zabala